

Aita Flanagan ta Eddy

Euzko Gaztedi, 9. zk., 1949-02: 10-14.
("Selecciones del Reader's Digest"tik euskeratua)

"Ume gaxtorik ez da, ta ezta izandu ere"..
... ta gero etorri zitzaion EDDY izeneko bat...

EBRASKA'n, ludi guzian UMEEN URIA bezela ezagutzen duten errian, artu zuten negu gogorreko gau batez urrutixkin dei bat:

– Aita FLANAGAN?... Virginia'ko ertzainburu egiten duan HOSEY naiz. Beste mutiko bat artuko al'zenuke... bereala?

– Nun dago orain?

– Espetxean. Lapur maltzur eta gaiztoenetakoa da. Bank batean lapurreta egin ondoren beste iru denda, su-iskilua eskuan daramala, lapurtu ditu.

– Zenbat urte ditu?

– Zortziterdi.

– Zenbat diñozu? –dio berriz.

– Etzaiozula bere adiñari jaramon egin, egia da, zortziterdi. Nik zan dizutana egia izanik, ez da guzia... Artuko al'zenuke?

Urte asko dira aita EDWARD JOSEPH FLANAGAN, ume gaizto ta biurrienak jaso ta zuzentzeko lanari ekin ziola, bere enda, erlijio edo adiñari jaramon aundirik egin gabe.

– Garai ontan da nere urteekin mutiko mukitzu ori bide onera eramateko indarrik gabe ba'nitz, orain arte egin detan guzia alperrikakoa izango litzakela uzte det –erantzun zion–. Bialdu nazazu nai dezunean.

Iru egun barru, HOSEY, ertzain-burua ta bere emazteak an zekarkiten aita FLANAGAN'en idazkaritzara mutiko biurri ura: besazpian pardeltxo bat zekarkian; odolik gabeko arpegitxoa zirudindin arek, txokolate orlegiko bere ile luze aiek begiak eztaltzen zizkieten, burua makur; espain ertzean zar batek lez, errekin bat, lotzagabe...

– Barka zaiozu –zion HOSEY jaunak–. Onera okarriko ba'genduan zigarrotxo batzuek eman bearrean arkitu gera...

– Emen dauzkazu –zion, berriz, HOSEY jaunaren emazteak, karpeta aundi bat mai gañean utziaz– ume onen ibilaldi batzuen agiriak. Ta... erdia ere ez dagoala derizkiot. Beratzaz iñor kupitzerik ez du merezi. Ta nere iritxia nai ba'dezu: ez da aberetxe bat besterik!. Agur, aita FLANAGAN, erruki dizut.

Aita FLANAGAN biotz bera ta lagun-urkoaren alde lan egiteko bere bizia Jaungoikoari eskeñi dionak etzuan beñere orrelako arlote parregarri ta kupigarririk bere begien aurrean ikusi.

Eskuagaz umeari exerileku bat eskeñi ondoren, mai gañean utzi zuten karpeta artu ta an zeuden agiriei begirune bat bota zien. Mutikoan abisenik etzan iñon ere agrtzen; danentzat EDDY utz-utzeko mutikoa zan nonbait. NEWPORT NEWS'ko kaiean, gaiztakori ta mixeri artean jaioa zan. Lau urte bete baño lenago galdu zituan gurasoak;

"influenza" deritzaion gaitz batek eman zituan, beste asko lez, garai artean Kaieko etxe zikin batetik bestera ibili zuten gero, zendi batetik bestera, iñork nai ez duan txakurtxo bat balitz lez.

Garai artan igaro zituan gose ta mixeriak biotz gogortu ta maltzurtu zuten. Zortzi urterekin bera baño zarrago ziran lapur biotz-gabeko talde baten buru egin zan.

Bera ertzañakoak arrapatu bañon lenago, sei bat ilabete lantxuago, bere taldeko batek beren buru izateko oskubidea ezpai batean jarri zuan lagun guzien aurrean.

– Ik ez dek beñere ire eskuz ezer egiten; ez aiz beñere arrixkatzen. Gure buru izaterik ez dek nerezi!...

– Ikusiko dek –erantzun zion EDDY'k. –I egitera ausartuko ez ziren zerbait egingo diat nik. Bank batean lapurreta bakarrik egingo diat.

Lapurreta egiteko Bank'eko idazkariak baskaltzera joateko amabietan utzi zuten bere lana. Iñortxo ere konturatu gabe diruzai baten leieraño eldu, anka puntetan, al zuan bezala, bere beso argal ura burnitaketa artetik sartu ta an toleztuta zeuden diru-ingi pilatik bat artu ta bere jantzi urratuen azpian gorde ondoren tximista bezin askar urten zan berriz kanpora.

Gutxi barru dirua bere lagunuen artean zabaltzen ari zan –berregun dollar-. Bañan berak uzte etzuana gerta zan. Lapurreta ixilka gorde zuten Bank'en eta urrengo egunean etzuten izparringiak ezertxo ere ezan.

– Ire lapurreta arrokeria besterik etzuan –erantzun zioten lagunak berari izekaka-. Ik nonbait arkitu uan diru ori ta gero arrokeriz lapurtu egin uala ezan. Ausartzu aizela uzte ba'dek, ez dek erakutzi beintzat.

EDDY'ren rantzuna ixilpekoa izan zan. Etzuan orduan ezer erantzun; bañan alde egin zuan aldi baterako ezer ezan gabe. Nonbaitetik su-iskilu bat lortu zuan eta andik egun gutxi barru bere eginkizun ausartzuekin bete zituzten izparringiak lenengo orriak.

Lendabizi, ia ixtera zijozen erandegi batera sartu ta bere su-izkilua aurrean jarri ondoren bertako nagusiari egunean bildu zuten diru guzia eman azi zion. Gero, jantzi-egile bateri lapurtu zion era berean. Bere irugarren lapurreta gozo denda bateko amon bati egin zion...

– Ustazu iskilu ori, ume –ezan zion amonatxoak ikaratuta- zaurituko zera ta!...

Zaplateko bat emanaz iskilua bota asi zion eta iletatik eltzen zion bitartean karraxika ekin zion. Iges egiteko alegiñak egin zituan EDDY'k eta bere naia lortu izan ba'zuan akatuko zuan amonatxoa, bañan ertzañako bat eldu zan ontan da an bukatu ziran EDDY'n eginkizunak, UMEN URI'ra eramane zuten bitartekoak beintzat.

Aita FLANAGAN'ek irakurtzez bukatu zuanean, ume aul, ezurtzu baño gaizto berezi arena zuzendu zituan bere begiak. An zegoan geldi-geldik lurrera begira, arpegitxoa ile azpian gordeta. Aita berari begira zegoela igarri zionean, bere sakeletik zigarro ingi ta tabako-orria atera zituan. Zarrak egiteko oitura zuten lez, esku batez bildu zuan bere errekiña; bere biatz aundio askazala gaz poxpolua pixtu, errekiñari su eman ta ausartzu, lotzagabe, gora, begira jarri ondoren gela ixkin batetik bestera bota zion aita FLANAGAN'eri ao batez kea.

Au egin ondoren, bere aurrean zeukan aitari guziak zer eldoztu az ote zion begira, zorrotz, geratu zan.

– EDDY, –ekin zion berak, xamurki– ongi etorri gure etxera. Etxe ontako zuzendariak zu bezelako mutikoak dira, zuk ba'dakizu. Alkate bezela zure kirako bat daukagu; beste agintariak ere, zu lez, gatzetxeak; ertzaiñaren buru egiten duana ere bai...

– Nun dago espetxoa?! –ekin zion gogorki EDDY'k.

– Emen ez degu espetxerik. Orain garbitu zaite ta gero apaltzera jetxiko zera. Biar ekingo iozu zure ikastolako lanari. Zu ta ni lagun bereziak izango generala ziur nago... zure esku dago guzia. Gutxi barru nere lagunik maiteena izango zerala uzte det. Ume ona zerala ba'dakit!

EDDY'ren erantzuna zakar bat izan zan.

Urengo goizean, or amarrak inguruan, aita FLANAGAN'en atea bat-batera iriki zan ta norbait iltzera ba'lator bezelako arpegiarekin, zitalkeri ta gaiztakeri guziak berekin zituala, azaldu zitzaion EDDY. Txukun da garbi zegoan: ilea ebakita, arpegi garbi-garbia, jantzi txukunak eta ondo orrastuta. gauzak batere garrantzirik ez ba'lu bezala bota zion mai gañera bere irakasle batek eman zion orri bat:

"Aita FLANAGAN: Mila aldiz entzun izan dizut ume gaiztorik ez dala. Ezango al'dirazu nola deitzen diozun oneko oneri?"

Aita FLANAGAN bere umearekin ikastolara zartu zanean, danak nastuta zebiltzen. Irakasleak zionez, EDDY geldi-geldik egondu zn ordu batez bere jarlekuan, lendabizi; gero, bat-batera zutik jarri ta alde batetik bestera, kalean ba lebil bezela, ibiliaz, birauka, arrapatzen zuan guzia lurrera boteaz asi zan. Askenez, nai gañean arrapatu zuan tintero bat artu ta arrika bota zion ZIZERON'en irudi bateri.

EDDY bere lekuan berriz exeri asi ta gero, aita FLANAGAN'en onela itzegin zion irakasleari, danen aurrean:

– Nere erruz gerta da guzia... Barka zaidazu –jarrai zion umil-umil. Aztu egin zitzaidan iñori tinterorik ez botatzeko esatea. Uriko legeak besteentzat bezala egiñak dira beretzat ere, ta gordetzen erakutziko diogu. Bañan lenago esagutu bear ditu. Ez degu beñere astu behar EDDY mutil on bat dala.

– Ez nai ona ta ez ta izango ere! –ekin zion karraxika EDDY'k.

Ume arek etzuan beregaz zaudenen artean ere lagunik egin. Eta aita FLANAGAN'entzat gordetzen zuan bere izeka gogor eta gogorik txarrena:

"Kristau madarikatua" –deitzen zion sarritan.

Jostatzeko edo atzedena artzeko izentatuta zeuden garaietan, nondik iges egingo zuan begira ibiltzen zan alde batetik bestera, ixilka, gordeta, beti bakarrik.

Bere lagunak "foot-ball" edo "baso ball" jolasean zebiltzen bitartean, edo jolas oietako bat ikustera kanpora eramaten zituztenean, azper-azper eginda ezer ikusi gabe beretzat berebizikoak esaten egoten zan.

"Umekeriak" –zion beti.

Musikak ere etzuan batere pozten. Bertako lanak apzertuta zeukaten. Eta sei ilabete oietan irri-par bat ez, malko bat ere ez. Beregaz zeuden guziak ala zioten:

"Aita FLANAGAN'ek arkitu ote du, azkenean, bere neurriko oñetakoa?"

– Ume onek ezer ikasten al'du? –galde zien aita FLANAGAN'ek bein batean etxeko monjei.

– Ala ere –erantzun zioten– lenengo izkiak ikasten ari da. Bañan gogo txar eta gorrotoak erreta daukate.

UMEEN URIA jarri ta landu zuanarentzat etzan oraingo au maldarik gogorrena izan. Ume batek bere aitari bala batez, otz-otzean, zulatu zion. Erailtzale gogor ta gaiztoa, bai, bañan bere ama asko maite zuan ta onela zigortu nai izan zuan bere ama maiz eta gogor jotzen zualako. Apaizak bere berri ondo jakin zuanean, zuzentzeko bidea bilatu ta berezia arkitu zuan. EDDY'rekin ere egongo zan bideren bat...

"Besteentzat gordetzen ditudan arauak utzi bearrean izango naiz EDDY'rekin –zion beretzat aita FLANAGAN'ek.

Egin zituan alegiñak, gizarajoak, ta etxeko irakasle ta ikasle guziak zer gertako ote zan zai zeuden. Oraindik apaiz gizajoak bere begien aurean dauka, il baten urren bestean, beregaz jolasetara, zine'etara, gozoak jatera bere lagun berezi bat bezela eramaten zuanean. Majiña bat izotz gozo, opil eder eman izan zion!

Bañan ala ere etzuan EDDY pozterik lortu. Udarako goiz gozoetan, eguntxint ederretan, beragaz eraman da orrekatxo polit batean arrantzan ibiltzen ziran biak. Bañan amorrai ederrenak ere etzuan batere pozten EDDY. Beiñere baño ixilago ta botilunago zebilen orain.

Bein batean lortu zuan apaizak umeari biotz-ukutu bat egitea. Ia itxaropen guzia galtzen azi zanean nabaitu zuan, pozez beterik, umearen begietan alako argitxo bizi bat.

OMAHA'ko urian zan. Berebil asko zebilen bide nagusi bat alde batetik bestera igarotzeakoan, EDDY, uzte gabea, ia berebil aundi batek azpian arrapatzera zijoala eldu zion aita FLANAGAN'ek, bere beso zendoekin gora jasoaz, larri ordea!. Umearen begiak eskertu zuten apaiza, aldi motxean benik; beriala, begiak bera jotxiaz, ixil-ixilik geratu zan.

Aita FLANAGAN'ek itxaropen guziak galdu zituan. Arrezkero etzegoan ezer egiterik. Benetan, zuzendu eziñeko gaizto purrukatu oietako bat ote zan oldoztu azi zion askenean.

Gauzak era ontara zeuden batean, udaberriko goiz batean, sartu zitzaion gure mutiko ori idazkaritzara; asarre, bere begiak sua dariotela...

– Zu nere lagun izaten alegindu zera –ekin zion ortzak estututa. Ia zure naia lortu zenduan, besteei bezela neri ere ziria sartuko ote zidazun Iarri ziñan, bañan ez dizut zure naia lortzen utziko, ain leloa ez naiz!!

Umearen begietan eta bere soin guzian alako gauz bildurgarri bat nabaitzen zan. Lenengo aldiz, ordea, umeak ain ondo esagutzen zituan apaizak nabaitu zuan umearen españetako dardartxo bat eta zerbait ba'zala, zion beretzat apaizak.

– Aita FLANAGAN, zu gezurti bat besterik etzera.

– Orain esan dezuna egia dala erakutzi idazu edo zaude ixilik!

– Monja bati ankean ostiko bat eman diet!... Eta orain zer diozu?...

– Betikoa. Mutil ona zerala.

– Zer nion nik! Zuk ba'dakizu ori gezurra dala ta ala ere bein eta berriz, itzetik ortzera, ori bera diezu. Ez al'zera gezurtia?

"JAUNGOIKO ONA, ZERUETAN ZAUDENA... BENETAN, EGIA DIO... ZER ERANTZUN NEZAKE? NOLA ADIERAZI BERAGAN DAUKATAN ITXAROPENA TA ZUREGAN DAUKATAN AUNDIA! Eddy'REN IZATEA ORAIN EDO BEÑERE EZ DET ZUZENTZEKO EOKIERIK IZANGO! JAUNA, EMAN IDAZU ERANTZUN ON ETA ZUZEN BAT ASMATZEKO ZURE LAGUNTZA!

Aita FLANAGAN'ek bere abotza garbitzeko estultxo bat egin ondoren, ala dio:

– EDDY: gauz bat zuzen edo oker dagoan ikusteko lain ba'zera. Zer da mutil on bat? Ume ona, obetzen duan umea da. Ez al'da egia?...

– Bai!

– Bere irakasleak agintzen dietena egiten al'du ume onak?

– Bai!

– Orduan, ori besterik ez da zuk egin izan dezuna beti, EDDY. Zuk irakasle txarrak izan dituzula, besterik ez! Ori da alde guzia!: kaieko alprojak, karrika basterretako gaizto batzuek. Bañan berak esan dizuten guzia egin izan dezu. Berak erakutzi izan dizuten gauz oker eta maltzurkeri guziak ikasi dituzu. Emen irakasle oneidi era berean obeitzen ba'diezu, nola aldatuko liraken gauzak zuretzako!!!...

Umea ixilik geratu zan. Egia zion Aita FLANAGAN'ek. Bere begietan argitxo bat zekarkiala, mantxo-mantxo, aitaren mai ingururano etorri zan. Aita FLANAGAN, biotz-estutua, zai zegoala, besoak iriki zizkion. Eta beraietara bota zan umea negarrez, bere burua aitaren magalean iskutatu naiean.

Gertakizun au azpaldikoa a. EDDY amar urte egon zan UMEEN URIA'n. Gero, ia ikastolako lenengotakoa izatera eldu zanean, bere aberkideekin gudara joan zan. EUROPA'ko itxas-ertzetan bete zuan bere eginbearra, itxas-gudari bezala. Iru aldiz izentatu ta iru gudari-maila igo zituan.

– Bere bularra –dio aita FLANAGAN'ek pozez beterik– medallez estalita dauka. Ez da arritzekoa! Beti izan zan ausartzu ta biotz beroa; leiala benetan. Bañan beste gauz bat ere lortu zuan ta Jaungoikoa onetzia izan dedila, bere laguneren maitetasuna. Guzientzat anai berezi bat bezelaxe izan zan. EDDY'n kristauaren gauz on guziak batuta daude. Eta beñere ezagutu izan ez detan bezelako biurri ta gaiztoa zan!...

Erritar [Martin Ugalde]